



**MIREN GONZALEZ  
BARRUTIA**

OÑATI GESTIO HEZIKETAko  
ikasle bergararra



**GOIAZ! 2018**

Lanbide Heziketaren Azoka  
**Apirilaren 17an eta 18an**  
Kulturaten, Arrasaten

  [goiazdebagoiena](#)



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune  
eta Lurralde Orekako Departamentua

# DEBAGOIENeko LANBIDE HEZIKETAko ESPERIENTZIAK

## IKASKETAK:

Administrazio eta Finantzak goi-mailako  
heziketa zikloa. 2.maila.

## GAUR EGUN:

Administrazio eta Finantzak goi-mailako zikloa  
ikasten eta Osarten enpresan lanean,  
administratzaile, egun erdiz.

### Eskola bukatuta, unibertsitate ikasketak hasi zenituen.

Bai; unibertsitatean hasi nintzen  
Enpresen Administrazioa ikasten,  
baina ez nengoen gustura, eta  
beste zerbait probatzea erabaki  
nuen. Sartzen digute buruan  
unibertsitatera joan behar dugula,  
baina badaude beste aukera batzuk.

### Eta Lanbide Heziketa aukeratu zenuen?

Bai; hasieran, duda izan nuen  
erabaki ona izango ote zen. Baina  
orain, ez naiz hartutako erabakiaz  
damutzen.

### Zein desberdintasun igarri dituzu unibertsitate ikasketen eta Lanbide Heziketaren artean?

Lanbide Heziketa praktikoagoa  
dela esango nuke. Erronketan  
oinarritutako metodologia

erabiltzen dugu, talde lana asko  
bultatzen da. Enpresa mundura  
bideratuta eta lanera  
orientatuago dago.

### Beraz, orain, ikasketak eta lana bateratzen dituzu?

Bai; goizetan lanera joaten naiz eta  
arratsaldeetan eskolak izaten  
ditugu (13:30-19:00). Ez da erraza,  
gogorra da, baina esperientzia ona  
da. Merezki du ahalegin hori egitea.  
Ondo antolatu behar duzu. Orain,  
praktikak egin behar ditugu eta nik  
bertan egingo ditut; beraz, egun  
osoz bertan egongo naiz.

### Eta etorkizunean zer?

Praktikak bukatu eta Osarten-en  
bertan lanean geratu banaiteke,  
ederto. Baina, bestela, ikasten  
jarraitzeko arazorik ez daukat,  
Lanbide Heziketan edo  
unibertsitatean.